

IKERKUNTZA. Londresko ikertzaile batzuek 700 umeki aztertu dituzte

Down syndromearen zantzua izan ahal da fetuaren sudurra

Hezurto baten faltarekin lotu dute adimen urritasun ohiko hori



Down sindromea duen gazte bat, festa giroan.

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Ingalaterrako ikerketa zentro batek Down sindromea zehazkiago atzemateko beste proba bat aurkitu duela jakinarazi zuen atzo *The Lancet* aldizkariak. Prozedura berriari *sudurren proba* izena paratu diote zientzialariek, umekiaren sudurraren ezaugarri batean oinarritzen delako.

Ikerketa Londresko Kings College Hospital School of Medicineko Umekien Sailean egin dute, Kypros Nicolaidesek gidatuta. Haren esanetan, «ikerketak iradokitzen du fetuen profila 11. eta 14. astean artean aztertzeko gero onura handiagoak lor daitezkeela».

Ikertzaileen idurikotz, sudurraren proba egun erabiltzen diren eskaneatze metodoekin konbinatuz gero, hainbat ondorio kaltegarri gutxi litezke. Alegia, Down sindromea atzemateko prozedura inbaditzailearen —umekia inguratzen duen likido amniotikoaren lagin bat ateratzeko, orratz bat sartzen da bertan— nahi gabeko kalteak bost bider murriztuko lirateke. Egun, metodo inbaditzailearen kalteen arriskua %1-3koa da.

Atzemate metodoak

Gaur egun 1.000 umetatik bat Down sindromearekin jaiozen da. Sindromea umearen zeluletan normala den baino kromo-

SUDURRAEN PROBA

Hezurto baten garrantzia

Sudurraren proba honetan datza: umekia 11. eta 14. astean artean aztertzen da, sudurreko hezurtooa duenez ikusteko. Denbora tarte horretan hezurto hori ez baldin bada agertzen, ikertzaileek uste dute umea Down sindromearekin jaioko dela. Sudurreko hezurtoaren falta, beraz, sindromearen zantzutzat dute.

KYPROS NICOLAIDES

Londresko Kings College Hospital School of Medicineko ikertzailea

«Ikerketak iradokitzen du fetuen profila 11. eta 14. astean artean aztertzeko gero onura handiagoak lor daitezkeela»

soma bat gehiago agertzeak eragiten du.

Sindromea atzemateko inbaditzaileak ez diren egungo metodoak hauek dira: amaren adina, odol proba eta garondoaren zeharrargitasuna —lepoaren atzealdeko jarioa neurtzeko—. Horiek guztiak konbinatuta umekiak sindromerik duen %75etan atzeman daiteke.

Zernahi ere den, emakume batzuk *positibo faltsua* ematen dutenez, medikuek metodo in-

baditzailea erabili behar izaten dute.

Gauzak horrela, sudurraren proba, garondoa eskaneatzea eta amaren adinaren datua, denak aintzat hartzekotan diagnostikoaren zehaztasuna %85ra goititzen ahal da.

Ikerketaren nondik norakoa

Kings Collegeko ikertaldeak 11 eta 14 asteko 700 umeki ikertu zituen iragan urtarrila eta urria artean. Horietatik jaiotzean Down sindromea agertu zuten 59 umeen %73k amaren sabelean zirela —betiere 11. eta 14. astean artean— ez zuten sudurreko hezurttorik. Haatik, normal jaiotako umeetatik —603— soilik hirurengan (%0,5) ez zen agertu hezurtooa. Umekiak aztertzeko, ultrasoinuzko eskaneerrez baliatu ziren ikertzaileak.

Mediku ingelesek ondorioztatu dutenez, 11. eta 14. astean artean sudurreko hezurtooa ez duten fetuek Down sindromea izateko %150 probabilitate gehiago dute. Ber gisan, sudur profil anormala zuten fetuen artean bestelako akats genetiko batzuk kausitu zituzten. «Atzeratutako garapenarekin lotua dago dena», azaldu zuen Nicolaidesek.

Azkenik, San Frantziskoko (EEBB) California Pacific Zentro Medikoko Jaioaurreko Diagnostiko Saileko zuzendari James Goldbergekin sudurraren probari «oso garrantzitsu» iritziz zion.

LABURRAN



Severino Antinori medikua.

GENETIKA

Klonazioaren inguruko lege hutsune batek Erresuma Batuan gizakiak klonatzeko bidea ireki dio Antinoriri

Iragan ostegunean abortuaren aurkako taldeek Londresko auzitegi goren batean enbrioien klonazioaz kasu bat irabazi zuten. Epaiaren ondorioz Erresuma Batuko legedian hutsune bat azaleratu zen; Giza Ernalkuntzaren eta Enbriologiaren Legeak dioenez, enbrio bat soilik izango da enbrio berau espermak ernaldu obulutik sortzen denean. Hortaz, zelula baten nukleoaren ordezkaketa bidez —klonazioa— lortutakoez ez da deus esaten. Lege hutsune horixe profintatu nahi du Severino Antinori mediku italiarra bikote antzuentzat klonazio birtartez umeak lortzeko.

ASTRONOMIA

Unibertso lehen izarrak nola sortu ziren irudikatu dute

Science aldizkariak dioenez, *Big Bang*-aren ondoren Unibertso lehen izarrak nola sortu ziren irudikatu dute EEBBetan, superordenagailu bat erabiliz. Egileak Harvard-Smithsonianeko Astrofisika Zentroko Tom Abel, San Diegoko Kaliforniako Unibertsitateko Michael Norman eta Massachusettseko Teknologia Institututuko Greg Bryan izan dira.

OSASUNA

Minbizia duen gaixoa gaitzaz informatu behar dela berretsi du Manuel Milletek

Juanma Sarasola | **DONOSTIA**

Urteetan kontrakoa egin bada ere, minbiziak jota dagoen eriar bere egoeraz egia esan behar zaiola berretsi zuen atzo Manuel Millet medikuak. Adierazpenok Donostiako Kursalean egin zituen, Espainiako Familiako eta Komunitate Medikuntzako Espainiako Elkartearen XXI. Kongresuan.

Millet doktoreak —Donostiako Ospitaleko Etxerako Ospitaleratze Unitateko familiako medikua da— esan zuenez, oraintsu arte Espainian nagusi izan den joera minbizidun gaixoari bere gaixotasunaren egoera eta bilakara ez jakinaraztea izan da.

EEBBetan eta gisako herrialdeetan, aldiz, diagnostikoa ezkatatzeak ondorio penal larriak izaten ditu. Han eriar duen gaitzaz informazio ugari ematen zaio, sistematikoki; batzuetan, ordea, «era zuzen eta gogor batean».

‘Gezur bat esan Getarian; nire aurretik zen atarian’

Nolanahi ere, Millet doktoreak esan zuenez, gaur egun joerak aldatzen ari dira eta gaixoari argibideak ematen zaizkio bere egoeraz, paternalismo oro baztertuz.

Gainera, Milletek honako gomendioa egin zuen, argi eta garbi mintzatuz: «Ez gaixoari gezurrik esan». Izan ere, Milleten ahotan, «erik senideen eta inguruko begietan nabari dezake gezurra».

Dena den, informazioa gaixok eskatzen duen heinean eman daitekeela zehaztu zuen, «denboran zehar tartekatuta».

Tolosaldeko komunikabide batek

— Banatzaileak —

behar ditu Irura, Anoeta, Tolosa, Alegia eta Ibararako.

LAN BALDINTZAK:

- ✓ Egunean 4 ordu.
- ✓ Goizeko 05:00etatik 09:00etara.
- ✓ Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak hotz egin 653 748784 telefonora, azaroaren 22a baino lehen.